# La mesa nacional de Batasuna a Euskal Herria [eus, cas]

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 25/03/2006

Ante la Declaración realizada por la organización ETA, la Mesa Nacional de Batasuna reunida de forma extraordinaria quiere trasladar al conjunto del Pueblo Vasco cual es su valoración de la actual situación política

- BATASUNA entiende que la aportación de ETA y la profundidad de la misma, se enmarca en un contexto político marcado por la crisis evidente de los actuales marcos políticos que dividen nuestro Pueblo. La oportunidad que se nos presenta, solo puede ser entendida desde la superación de esquemas políticos del pasado y la necesidad de construir el futuro desde el respeto escrupuloso a la pluralidad del Pueblo Vasco y al derecho a decidir libre y democráticamente su futuro.

- Son los ciudadanos y ciudadanas vascas y muy especialmente los y las militantes de la izquierda abertzale quienes han abierto las puertas a la esperanza de un futuro democrático para nuestro Pueblo. BATASUNA quiere volver a resaltar que esta oportunidad se ha construido en primer lugar gracias al esfuerzo y el trabajo de los y las militantes de la izquierda abertzale, en las instituciones, en la calle, en las cárceles o el exilio. Quienes participaron de manera activa en las diferentes jornadas de huelga, movilizaciones, o quienes durante el periodo de ilegalización nos han apoyado con su voto son merecedores-as en primera persona de nuestro agradecimiento. Les corresponde a ellos y ellas en primer lugar sentirse protagonistas principales en este momento histórico.

- BATASUNA quiere además subrayar la gran contribución para hacer posible este escenario de todas aquellas fuerzas políticas, sindicales y sociales que durante años han participado junto a nosotros y nosotras en las tareas de construcción nacional y de transformación social, así como en la búsqueda de soluciones, entre ellas las que nos han acompañado en el marco del Foro de Debate Nacional. Asimismo, queremos resaltar la aportación que estas mismas fuerzas han hecho en defensa de los-as prisioneros-as y políticos-as o de los derechos políticos y civiles.

- El Anuncio por parte de la Organización ETA de declarar un alto el fuego permanente, se une al cúmulo de acontecimientos que generan una expectativa real para la consolidación de un proceso que desemboque en un escenario de paz justa estable y duradera para Euskal Herria.

- BATASUNA quiere en primer lugar significar la apuesta valiente y decidida que la organización ETA con su Declaración ha aportado a la búsqueda de un proceso de soluciones políticas y democráticas al conflicto que enfrenta a Euskal Herria con los Estados español y francés.

- Esta Declaración tan significativa demuestra y avala la absoluta voluntad de la Organización ETA en su apuesta por buscar la paz y la democracia para el conjunto del Pueblo Vasco.

- BATASUNA sigue insistiendo en la necesidad de que los Estados español y francés asuman ahora sus propias responsabilidades. Las estrategias del pasado solo alimentan el conflicto. La partición territorial y la negación de la voz y la palabra a Euskal Herria han demostrado suficientemente su fracaso. Esperamos que ambos Gobiernos respondan de manera inmediata y de forma constructiva y positiva a esta coyuntura histórica.

- BATASUNA quiere agradecer también las muestras de apoyo recibidas desde el ámbito internacional. Queremos agradecer en este sentido de manera especial las muestras de solidaridad y apoyo recibidas desde el Movimiento Republicano Irlandés. Entendemos que el conflicto político vasco es un conflicto europeo. Hacemos un llamamiento a la comunidad internacional para que con su presencia y ayuda garantice la irreversibilidad y el éxito del proceso democrático.

- BATASUNA quiere además hacer un llamamiento al conjunto de fuerzas políticas, sociales y sindicales de Euskal Herria: "la pelota está en el tejado de todos y todas, no hay lugar para la excusa o el interés partidista". Acordar las bases, principios y compromisos para la puesta en marcha de la Mesa de Solución es la tarea inmediata que debemos marcarnos. Sin prisas pero sin pausas, construir esa Mesa de Solución es un objetivo que debe de construirse desde la no exclusión ni política ni territorial y el respeto a los derechos políticos y civiles de todas las partes.

- BATASUNA quiere hacer un llamamiento a la sociedad vasca para que se mantenga activa en este proceso. La movilización popular es también la mejor de las garantías para el éxito de este proceso. El compromiso para construir Euskal Herria desde la izquierda, el trabajo institucional, la defensa de los presos y presas políticas, debe ahora, lejos de relajarse impulsarse de manera exponencial. En ese sentido, la manifestación del próximo día 1 de abril debe servir para catalizar un polo político, sindical y popular que impulse un escenario de soluciones democráticas para Euskal Herria.

- BATASUNA mira al futuro con confianza y serenidad. Nadie nos va a regalar ni solucionar nada. Corresponde al Pueblo Vasco seguir luchando y trabajando para que el proceso de soluciones que hemos de construir sea capaz de ir a la raíz del conflicto y dote de una solución global, justa, compartida y duradera para el conjunto de Euskal Herria.

- BATASUNA quiere por último, asumir el compromiso de seguir trabajando con honestidad y discreción (pero sin secretismos) por una solución justa, estable y duradera para Euskal Herria. Los y las independentistas vascas aspiramos a construir un escenario democrático donde sea única y exclusivamente la voluntad popular quien determine nuestro futuro como Pueblo. Queda un largo camino, pero la izquierda abertzale sabe que su posición en la Mesa de Solución es una posición compartida por la inmensa mayoría de vascos y vascas, esa es nuestra auténtica fortaleza. Esta es nuestra fuerza y la principal fuente de nuestro potencial político.

Nuestra última reflexión es para nuestros presos y presas políticas, refugiados y refugiadas y para sus familiares. Seguimos compartiendo vuestros anhelos, vuestros sufrimientos y vuestra voluntad por encontrar soluciones. No vamos a cejar en ese empeño, hasta traerlos a casa, hasta traerlos a una Euskal Herria donde el proyecto político subyacente a su lucha se pueda materializar. Un fuerte abrazo para todos y para todas y en especial para las

familias de todos los compañeros y compañeras que se nos han quedado en el camino. Merecían estar aquí y ahora disfrutando de esta oportunidad, porque son ellos y ellas quienes también lo han hecho posible.

Euskal Herria, 24 de Marzo de 2006

Mesa Nacional de Batasuna

---

- BATASUNAren aburuz, ETAren ekarpen hau eta bere sakoneko hedadura, gure Herria zatitu eta zauritu egiten duten marko politikoen ageriko krisiaren testuinguruan kokatzen da. Aurrez aurre dugun aukera, iraganeko eskema politikoen gainditzetik eta Euskal Herriaren geroa libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidearen errespetu arduratsutik soil-soilik ulertu daiteke.

- Euskal herritarrek, eta bereziki Ezker Abertzalearen kideek, etorkizun demokratiko baten itxaropenari ateak ireki dizkiote. BATASUNAk berriz ere nabarmendu nahi du aukera hau kalean, instituzioetan, kartzelan, sasian Ezker Abertzaleko militanteen borroka eta lanari esker eraiki dela. Greba eta mobilizazio egun latzetan, ilegalizazioaren aroan beren botoekin babestu eta indartu gaituztenei singularraren lehen pertsonan doakie gure esker ona. Beraiei dagokie une historiko honetan protagonista nagusi gisa sentitzea.

- BATASUNAk halaber, nazio eraikuntzan, eraldaketa sozialean eta gatazkaren konponbidearen lortze lanean parte hartzen duten indar politiko, sindikal eta eragile sozialen ekarpen mardula azpimarratu nahi du. Egoera berri hau sortzeko bidean adierazpen berezia merezi duen Nazio Eztabaida Gunea tarteko. Era berean, euskal presoen eskubideen alde eta Eskubide Zibil eta Politikoen defentsan egiten ari den lan eskerga goretsi nahi dugu.

- Euskadi Ta Askatasuna erakundeak su-eten iraunkorra indarrean jartzeko ekimenak, azken denboran eman diren gertakariekin batera, Euskal Herrira bake justu, egonkor eta iraunkorra ekarriko duen prozesuaren itxaropen erreala elikatu eta indartzen du.

- BATASUNAk ETA erakundeak bere ekimenaraekin Euskal Herriak espainiar eta frantziar Estatuekin duen gatazka politikoarentzat soluziobide demokratiko eta politikoak bilatzeari begira egin duen ekarpen ausart eta irmoa nabarmendu nahi du.

- Ekarpen esanguratsu honek, Euskal Herrira bakea eta demokrazia ekartzeko ETAren erabateko borondatea adierazten eta bermatzen du.

- BATASUNAk Estatu espainiarrak eta frantziarrak beren erantzukizun propioak onartu eta beregain hartzearen beharra nabarmentzen jarraitzen du. Iraganeko estrategiek soilik gatazka elikatzen dute. Lurralde zatiketak eta Euskal Herriaren hitza eta erabakiaren ukazioak beren porrota ongi aski erakutsi dute. Koiuntura historiko honen aurrean gobernuek berehala eta modu eraikitzaile eta positibo batez erantzun behar dute.

- BATASUNAk Euskal Herriak nazioartetik jaso dituen babes eta elkartasun keinuak eskertu

nahi ditu. Zentzu honetan bereziki eskertu nahi dugu irlandar mugimendu errepublikarrak eskainitako babes eta maitasun osoa. Gure Herriak bizi duen gatazka Europako gatazka da. Konponbidearen bidean nazioarteko komunitateari deia luzatzen diogu bere presentziaz eta laguntzaz prozesu demokratikoaren itzulezintasuna eta arrakasta berma ditzan.

- BATASUNAK, aldi berean, dei bat luzatu nahi die Euskal Herriko indar politiko eta eragile sozial eta sindikalei: Pilota guztion teilatuan dago eta ez dago aitzakia merke eta alderdikerientzat lekurik. Konponbiderako Mahaia martxan jartzeko beharrezkoak diren oinarriak, printzipioak eta konpromisoak adostea da gure lehen zeregina. Presarik gabe baina etenik gabe, lurralde bazterketa eta bazterketa politikorik gabe, guztion eskubide politiko eta zibilen aitortzan oinarrituko den Konponbiderako Mahaia eraikitzea da erronka.

- BATASUNAk euskal herritarrei prozesu honetan erne eta aktibo egoteko deia egiten die. Herri mobilizazioa prozesu honen arrakasta bermatzeko biderik eraginkorrena da. Nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala, Euskal Herria ezkerretik eraikiz, lan instituzionala, gure presoen defentsa epeldu baino modu biderkatzaile eta ofentsiboz bultzatu behar dira. Zentzu honetan, datorren apirilaren 1eko manifestazioa Euskal Herriarentzat konponbide demokratikorako bultzadan erreferente politiko, sindikal eta herritarra bizkortzeko eta sendotzeko baliagarria izan behar du.

- BATASUNAk etorkizuna lasaitasunez eta konfiantzaz begiratzen du. Inork ez digu ezer oparituko ezta konponduko ere. Euskal Herriari dagokio borrokan eta lanean jarraitzea gatazkaren erroei helduz prozesuak konponbide orokor, justu, partekatu eta iraunkorra izan dezan.

- BATASUNAk, azkenik, Euskal Herriarentzat konponbide justu eta iraunkor baten alde zintzotasunez eta zuhurki (baina sekretismorik gabe) lanean jarraitzeko konpromisoa berresten du. Euskal independentistok gure Herriaren geroa herri borondateak soil-soilik erabakiko duen egoera demokratikoaren alde borrokatzen dugu. Oraindik bide luzea dago egiteko, baina Ezker Abertzaleak badaki konponbiderako mahaian ordezkatuko duen posizioa eta jarrera gure herriaren gehiengoarekin bat datorrela. Hau da gure indarra, gure ahalmenaren iturria.

Gure azken hausnarketa euskal preso, iheslari eta beren senitartekoentzat da. Zuen amets eta gogoak gure-gureak dira, zuen sufrikarioak eta konponbidearen aldeko grina bezala. Bide eta helburu horretan ez dugu etsiko, ez dugu etsiko etxera ekarri arte, beren borrokaren muinean dagoen proiektu politikoa bideragarri izango den Euskal Herrira ekarri arte. Zuek guztiontzat besarkada eder bat, bereziki bidean erori diren kideen senitartekoentzat. Orain eta hemen, gurekin egotea merezi zuten, aukera honetan parte hartuz, beren borrokak eta entregak ere posible egin baitute.

Euskal Herrian, 2006ko martxoaren 24ean

Batasuneko Mahai Nazionala

---

*https://eh.lahaine.org/la_mesa_nacional_de_batasuna_a_euskal_he*